

EIPS-eko irakurleak kudeatzeko eskuliburua

2016ko iraila

c/ Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
– tel. 945 01 94 70 – Fax 945 01 95 34 –
e-mail: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
ESKULIBURUAREN XEDEA ETA ZABALKUNDEA	3
IRAKURLEEN KUDEAKETA	3
ERABILTZAILEREN BERRIEN DATUAK SARTZEA	3
Irakurlearen datuak	4
Mailegua	8
Helbideak	9
Besterik (aukerakoa)	11
Beste motatako irakurle-mota zerrenda (aukerakoa)	11
MOTA ANITZEKO IRAKURLEAK GEHITZEA	12
IRAKURLEAK BESTEGANATZEA	14
HAUR → HELDU IRAKURLE ALDAKETA	15
IRAKURLEEN INPRIMAKIAK	15
Etiketa eta txartelak lortzea	15
Irakurleen txartelak	16
Inprimatzeari buruzko zehaztasunak	16
Irakurle txartelak inprimatzea	16
Irakurle etiketak inprimatzea	18
Irakurle zerrendak inprimatzea	19
Irakurle gutunak inprimatzea	20
IRAKURLEEN ORDAINKETAK	23
ISUNEN KUDEAKETA	23
Zorrari zenbateko berri bat erantsi	23
Irakurleen zorren ordainketak	24
Ekonomikoak ez diren isunak:	26
IRAKURLEEN ESTATISTIKAK	27
Estatistika orokorrak:	27
Irakurleen estatistikak alta dataren arabera:	28
Irakurleen estatistikak azken erabilera dataren arabera:	28
IRAKURLEEN KONTSULTA ESTATISTIKOAK	31
Irakurleen hileroko zenbaketak:	31
Gutunen hileroko zenbaketak:	34
IHS	37
1 ERANSKINA Herrialde taula irakurle profilarentzat	42
2 ERANSKINA. Irakurleak alta emateko eskabide-orriak	44
3 ERANSKINA. Liburutegi txartelaren aldaketa eskatzeko protokoloa	47

ESKULIBURUAREN XEDEA ETA ZABALKUNDEA

Eskuliburu honen xedea da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) udal liburutegietako erabiltzaileen datuak sartzeko edota kudeatzeko orduan jarraitu beharreko prozedura zehaztea.

IRAKURLEEN DATU-BASEA BAKARRA IZANGO DA EIPS-EKO UDAL LIBURUTEGI GUZTIENTZAKO. HORRELA, EGITEN DIREN ALDAKETAK SARE GUZTIAN IZANGO DUTE ERAGINA, ETA EZ SOILIK ALDAKETAK EGITEN DITUEN LIBURUTEGIAN.

IRAKURLEEN KUDEAKETA

ERABILTZAILE BERRIEN DATUAK SARTZEA

Irakurle berrien datuak sartzeko orduan honako prozedura jarraituko da:

Erabiltzaileak bere datu pertsonalak jasoko dituen inprimaki bat bete beharko du. Inprimaki hori Liburutegi Zerbitzuak ematen du. (Eskuliburuaren amaieran 1 eranskina atxikitzen da erabili beharreko inprimakiekin, euskarazko bertsioan eta euskara-gaztelaniazko bertsioan).

Web bidez ere bete daiteke OPAC-etik, norberak betetzeko inprimakia erabiliz:

<http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua>

Liburutegiak behin betiko bildu eta gorde behar ditu formulario horiek; oso garrantzitsua da haiek kontserbatzea, irakurleen fitxategia datuen babeserako legearen eraginpean dagoelako¹. Lege horrek ezarritako betebeharrak behar bezala betetzeko, hitzarmen bat sinatzen da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta liburutegiaren titularren (udalaren) artean.

Behin inprimakia bete eta gero, liburuzainak datuak AbsysNeten sartuko ditu honako urratsak jarraituz:

1. Erabiltzailea fitxategian dagoen egiaztatu. Horretarako irakurleak kudeatzeko modulura sartuko da pantailaren ezkerretara dagoen menutik.

¹ 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.

Irakurleak

- Irakurleen kudeaketa
- Irakurleen ordainketak
- AIH
- ☐ Irakurleetatik inprima daitekena
- ☐ Estatistikei buruzko kontsultak

- Behin irakurleen pantailan, sartu irakurlearen NANaren zenbakia edota izen-abizenak. Hainbat eremutan bilatzea gomendatzen da, tipografia akatsak egon daitezkeelako.
- Irakurlea datu-basean ez dagoela egiaztatu ondoren, datuok irakurleen fitxategian sartuko dira, horretarako sistemak ezarritako eremuak beteko dira.
- “Irakurleak kudeatzeko” leihoan gehitu  botoian klikatu eta irakurle berriaren datuak sartuko ditugu.

Irakurleari buruzko informazioa

Irakurle-zk.

Pasahitza

Tr./Iniz./Izena

Abizenak

Ezizena

Heldua ☒

Liburutegira esleitua ☒

NAN

Liburutegia

Jaiotze-data

Sukurtsala

Ordezko zenbakia

Irakurlearen datuak

Irakurlearen zenbakia: eremu hau irakurlearen barra-kodearen zenbakiarentzako dago erreserbatuta. Gure kasuan datu hori jasotzeko bi aukera daude:

- Irakurle helduen kasuan:
Irakurlearen zenbakia **NANaren zenbakia izango da**, punturik eta azkeneko letrarik gabe idatziko da.
- Haurren edota NANik ez duten helduen kasuan **zero (0) jarriko da**; modu horretan, sistemak automatikoki zenbaki bat emango dio.

Irakurle-zk.

Pasahitza: eremu hau automatikoki betetzen da 4 digituko ausazko zenbakiarekin, eta irakurle berriaren datuak gorde ondoren berehalaxe enkriptatzen da; hortaz, erregistroa gorde aurretik zenbakia apuntatu beharko da. Erabiltzaileak webeko OPACetik aldatzeko aukera izango du.

Tr./Iniz./Izena: eremu honetan tratamenduari, izenaren inisialari eta irakurlearen izenari buruzko datuak jasoko dira, hurrenez hurren. Eremu hau honelaxe beteko da:

Tratamendua: trataerari dagokion laburdurarekin beteko da. Eremu hau betetzea ez da nahitaezkoa, eta liburutegi bakoitzak erabakiko du bete edo ez.

Iniziala: izenaren iniziala edo inizialak letra larriz idatziko dira jarraian puntua jarrita. Bi inizialen kasuan, tarterik ez da utziko, esaterako, R.M. (Rosa Miren).

Tr./Iniz./Izena	And.	R.M.	Rosa Miren
-----------------	------	------	------------

Izena: letra xehez idatziko da, lehen letra izan ezik eta azenturik gabe.

Tr./Iniz./Izena			Joseba
-----------------	--	--	--------

Abizenak: bi abizen idatziko dira, azenturik gabe bilaketa errazteko. Sistemak automatikoki karaktereak letra larritan bihurtzen ditu.

Abizenak	LAZARRAGA GONZÁLEZ
----------	--------------------

Jaiotze-data: eremu honetan irakurlearen jaiotze-data jasoko da (ez da nahitaezkoa). Honela idatziko da: ee/hh/uuuu².

Jaiotze-data	06-01-1978
--------------	------------

Heldua: egiaztatze laukia da eta bertan irakurlea haurra edo heldua den jasoko da. Erabiltzaile helduak 14 urtetik gorakoak izango dira.

Liburutegira esleitu: egiaztatze lauki hau beti MARKATU BARIK egon behar da.

Liburutegira esleitu ☐	
Liburutegia	A0039 Gasteiz
Sukurtsala	027 Judimendi

Liburutegia eta sukurtsala: liburutegia eta sukurtsala (egonez gero) jasoko dira.

NANa:

EIPS sortu zeneko irakurleen kasuan: sistemak eremu honetan automatikoki irakurlearen zenbaki zaharra idatzi du, aurretik CB letrak dituela.

² Sistemak euskarazko hurrenkera ez du onartzen; hortaz, gaztelaniazkoa erabili behar da.

Bibliotekari esleitatua	☐
Biblioteka	A0039 Gasteiz
Sukurtsala	027 Judimendi
NAN	CB-775131

Irakurle berri bati alta ematerakoan eremu honetan NAN, pasaportearen txartela, bizileku-txartela etabar idatziko dugu. Eremua, NAN zenbakia letrarekin eta zuriunerik gabe beteko da.

Irakurle-zk.	12345678K
--------------	-----------

Hautazko zenbakia:

NANa dutenen irakurleen kasuan: NAN zenbakia letrarekin idatziko da, zuriunerik gabe.

Irakurle-zk.	12345678K
--------------	-----------

NANik ez dutenen irakurleen kasuan: Erabiltzaile hori identifikatzeko balio duen edozein beste zenbaki idatziko da (Pasaportea, lizenpe, HUT,...)

Pantailaren beheko aldean, datuen fitxan, honako datuak jasoko dira: irakurle mota, ezaugarriak eta abar. Datu horiek aurrez Liburutegi Zerbitzutik parametrizatuta daude.

Datuak	Mailegua	Helbideak	Besterik	Beste motatako irakurle-mota zerrenda
Irakurle-mota				
1go kodea				
2. kodea				
3. kodea				
Profila				
Alta-data				
Berritze-data				
Iraungipen-data				
Gabetze-data				
Azkeneko erabilera eguna sarean				
Azkeneko erabilera eguna liburutegian				

Irakurle-mota: liburutegi publikoetan egon daitezkeen irakurle-motak zehazten dira. Parametrizatuta dauden motak hauexek dira:

KODEA	DESKRIBAPENA	DESKRIBAPENA
AHE	Heldua	14 urtetik aurrerako erabiltzaileak.
BHA	Haurra	0 eta 13 urte bitarteko erabiltzailea.
DER	Erakundea	Erakunde izaera duten “irakurleei” zuzendutako erabiltzaile-mota (elkartek, elkargoak, etab.)
EBL	Beste liburutegi batzuk	Erabiltzaile mota hau beste liburutegi batzuentzako da, liburutegien arteko mailegua errazteko xedearekin.
FIK	Ikertzailea	Eskaera-orri ofizialeko ereduan eskatzen duen eta ikertzaile dela frogatzen duen persona orori emango zaio. Ikertzaile txartela bateragarria da beste txartel motekin. Beraz, erabiltzaileak ikertzaile txartela eta heldu txartela izan dezake aldi berean.

Irakurlearen 1. kodea: kode hau sexua bereizteko erabiliko da.

KODEA	EUSKARA	GAZTELANIA
AGI	Gizona	Hombre
BEM	Emakumea	Mujer
CEA	Ez aplikagarria	No aplicable

CEA kodea (ez aplikagarria) “Erakunde” edota “Beste liburutegi batzuk” bezalako irakurleentzako erabiliko da.

Irakurlearen 2. kodea: kode hau erabiltzailearen lanbidea deskribatzeko erabiliko da.

KODEA	EUSKARA	GAZTELANIA
APR	Profesionala	Profesional
BIK	Ikaslea	Estudiante
CET	Etxeko lanak	Labores de casa
DER	Erretiratua	Jubilado
EBB	Beste batzuk	Otros

Irakurlearen 3. kodea: Momentuz libre geratzen da. Ez zaio inolako informaziorik egokitu.

Alta-data: automatikoki betetzen da irakurle berriaren datuak sartu diren egunaren datarekin.

Berritze-data
Iraungipen-data

Lauki hauek ez dira beteko, oraingoz ez baitira txartelak berrituko.

Gabetze-data: dokumentuak atzerapenarekin itzultzen badira, zigorraren azken eguna adieraziko da. Liburuzainak nahi izanez gero, eremu hau ezabatu edota aldatu dezake.

Azkeneko erabilera eguna liburutegian: automatikoki betetzen da irakurlearen datuak sartzen diren egunaren datarekin. Irakurleak mailegu zerbitzua erabiltzen duenean automatikoki eguneratuko da dokumentuak maileguan hartzen, itzultzen edota erreserbatzen dituen azken egunaren datarekin.

Mailegua

Maileguaren fitxan, zerbitzu honi buruzko datuak beteko dira:

Datuak	Mailegua	Helbideak	Besterik	Beste motatako irakurle-mota zerranda
Etxean mailegatutako art. Erreserbatutakoak Aretoan mailegatutako art. Maileguak urte honetan Eskatutako art. Maileguak aurreko urtean				
Zorra Atzeratutako itzulketak Ordaindutakoa Zigortutako aldi kopurua Ordaindu gabekoa Bidalitako gutunak Gutun-mota				

Mailegatutako dokumentuak: automatikoki zero (0) batekin betetzen da. Irakurleak mailegu zerbitzua erabiltzen duen heinean, eguneratzen joango da une bakoitzean maileguan dituen dokumentu-kopuruaren informazioaren arabera.

Aretoan mailegatutako dokumentuak: automatikoki zero (0) batekin betetzen da.

Eskatutako dokumentuak: automatikoki zero (0) batekin betetzen da. Automatikoki eguneratzen joango da une bakoitzean eskatuta dituen dokumentu-kopuruaren informazioaren arabera.

Erreserbatutakoak: automatikoki zero (0) batekin betetzen da, eta gainerako eremuetan bezala irakurle bakoitzak une horretan duen erreserba-kopuruarekin automatikoki eguneratuko da.


Zorra: automatikoki zero (0) batekin betetzen da. Gure kasuan beti balio hori edukiko du, EIPSeko mailegu-politikan ez baita diru zigorrik aurreikusten.

Ordaindutakoa: automatikoki zero (0) batekin betetzen da.

Ordaindu gabekoa: automatikoki zero (0) batekin betetzen da.

Atzeratutako itzulketak: automatikoki zero (0) batekin betetzen da. Sistemak automatikoki eguneratuko du epez kanpo itzultako mailegu-kopurua.

Gutun-mota: Irakurlearen jarraipenak jarraituz beteko dugu: 1 (elebiduna) edo 2 (euskara) sartuko dugu. Irakurle bakoitzak erreklamazio gutunak nahi duen hizkuntzatan jaso ditzan erabiltzen da.



Mod. 1 – Gutuna elebiduna (euskara/gaztelania) izan dadin nahi bada

Mod. 2 – Gutuna euskaraz nahi baldin bada.


Zigortutako aldi kopurua: automatikoki zero (0) batekin betetzen da. Eremu hau automatikoki betetzen da irakurle bat zigortzen den aldiko.

Bidalitako gutunak: automatikoki zero (0) batekin betetzen da, eta irakurleari bidalitako gutun-kopuruarekin automatikoki eguneratzen da (maileguen erreklamazioak, erreserbak, desideraten egoeraren jakinarazpenak eta abar).

Helbideak

1. helbidea³: nahitaezko eremua da. Datuak horrela sartu behar dira:

- Lehen lerroa: helbidea letra xehez idatziko da (nahi izanez gero, euskaraz laburdurak erabil daitezke). Helbidea euskaraz jasotzeko behean aipatzen den artikulua kontsulta daiteke.
- Posta-kodea: dagokion zenbakia idatziko da eta eskuineko lupa klikatuko da.



EAEko posta-kodeak jasotzen dituen informazio lauki bat agertzen da.

³ Helbidea euskaraz betetzeko honako artikuluan idatzitakoa jarrai daiteke: *Nola idatzi helbideak euskaraz* (Administrazio euskaraz 39. zk, 17. or. edota <http://www.ivap.euskadi.net> helbidean kontsulta daiteke).

absysNET Posta-kodeak		
http://www.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetcl/x8571/ID1049c108/NT12?ACC=121&TB=83&XCAPCODPOSVAL=48005		
Kodea	2. helbidea-deskripzioa	3. helbidea-deskripzioa
1 48005	BILBAO	BIZKAIA

Behar dugun lerroan klikatuko dugu eta programak herriaren eta probintziaren datuak helbidearen bigarren eta hirugarren lerroa eramaten ditu.

1go lerroa, 1go helbidea	Buena Vista, 5 - 1º A
	BILBAO
	BIZKAIA
1go Posta-kodea	48005

2. helbidea: aukerako eremua da, soilik erabiltzaileak bi helbide ematen ditutenean beteko da. Datuak lehenengo helbidean bezala beteko dira.

Telefonoa: aukerako eremua da, baina betetzea gomendatzen da. Telefono zenbakia tarterik gabe beteko da.

2. telefonoa: aukerako eremua da, goiko telefonoa bezala beteko da.

Telefono mugikorra: aukerako eremua, aurrekoak bezala beteko da.

Posta elektronikoa erabili: gutunak posta elektronikoz bidali behar badira hautatuko da eremu hau.

Posta elektronikoa: erabiltzailearen posta elektronikoa letra xehez jasoko da.

Posta elektronikoko helbideak ez dira baliozkoak honako kasuetan:

- @-rik ez dutenean
- Zuriuneak daudenean
- Domeinurik ez dutenean

Posta elektronikoa irakurlearen buruzko informazioa oso garrantzitsua da, eta betetzen saiatuko gara beti. **eLiburutegia** plataformak mezu elektronikoa bidaltzen dizkie irakurleei erreserbei buruzko informazioa eta maileguen iraungipenari buruzko informazioa adieraziz.

Datuak	Mailegua	Helbideak	Besterik	Beste motatako irakurle-mota zerrenda
1go lerroa, 1go helbidea Buena Vista, 5 - 1º A BILBAO BIZKAIA 1go Posta-kodea 48005 Telefonoa 944000000 Telefono mugikorra 666666666 2. lerroa, 1go helbidea 2. Posta-kodea 2. telefonoa Posta elektronikoa erabili ☒ Posta elektronikoa kaixo@liburutegia.eus				

Besterik (aukerakoa)

Konexio kopurua: Irakurlea OPAC-era zenbat aldiz konektatu den adierazten du.

Mezua: eremu hau irakurleari buruzko oharra idazteko erabil daiteke. Hemen jasotako informazioa maileguaren, itzulketaren eta kontsulten pantailetan ikusiko da.

Oharra: irakurleari buruzko oharra idazteko erabiliko da eta soilik pantaila honetan ikusi ahalko da.

Mailegu-mugimenduaren mezua: irakurleari buruzko edozein ohar idazteko. Hemengo informazioa irakurleak dokumentu bat maileguan hartzen duenean ikusiko da.

Azken konexioa: Irakurlea OPAC-era konektatu den azken aldiaren data agertuko da.

Beste motatako irakurle-mota zerrenda (aukerakoa)

Soilik erabilera anitzeko irakurleak definitzeko kasuan erabiliko da.

MOTA ANITZEKO IRAKURLEAK GEHITZEA

Irakurleak normalean irakurle-mota bati lotuta daude, dokumentuak mailegatzea ahalbidetzen duen mailegu-politika definitzeko helburuarekin.

Batzuetan beharrezkoa izan daiteke irakurleak profil ezberdinei lotzea (esaterako, erabiltzaileak denboraldi batean ikertzaile gisa lan egin behar badu, eta horren ondorioz lotuta dagoen irakurle motak mailegatu ezin dituen liburu jakin batzuk mailegatu ahal izango ditu). Zer egin daiteke horrelako kasuetan? Nola egin irakurleak ale jakin batzuk eramateko lotuta dagoen irakurle mota aldatu gabe? Arazo horren irtenbidea irakurle bati mota ezberdinak lotzeko aukera ematea da.

Irtenbide horrek EZ du uzten irakurleak liburu gehiago mailegatzea. Dokumentuen muga beti izango da bere irakurle mota nagusiak duena.

Horretarako, *Irakurleen kudeaketako* leihoko *Beste motatako irakurle-mota zerrendaren* aukera erabiltzen da.

Mota anitzeko irakurleak sortzea honako gai hauek hartzen ditu aintzat:

- irakurle baten gabetze-eguna beti irakurle mota nagusiaren gabetze-egunari dagokio.
- irakurle nagusi motaren iraungitze-eguna beti egon behar da bigarren mailako irakurle motaren iraungitze-egunaren gainetik.
- zerrendek soilik hartzen dituzte kontuan irakurle mota nagusiak.
- lehentasun-ordena. Mailegua edo erreserba egiterako unean aukera ezberdinak existitu ezker, aplikazioak lehentasuna ematen dio irakurle mota **nagusiari**. Hori ez balego aukeren artean, esaterako, maileguan eraman nahi duen ale-motarako mailegu-politikarik zehaztuta ez dagoelako, aplikazioak lehentasuna ematen dio zerrendan 1 zenbakidun orden hurrenkera duen bigarren mailako irakurle-motari. Eta horrela hurrenez hurren.


Datuak	Mailegua	Helbideak	Besterik	Beste motatako irakurle-mota zerrenda		
	Gehitu +	Ordena	Irakurle-mota	Erregistro-eguna	Berriztapen-eguna	Iraungipen-Eguna
	 	  1	BHA HAURRA	07/09/2012		28/09/2012 23:59

Mota anitzeko irakurle mota sortzeko honako urratsak jarraituko dira:

- *Irakurleen kudeaketa* pantailan bilatu botoian  klikatu, mota anitzeko irakurleak gehitu nahi dugun erabiltzailea bilatzeko.
- **Beste motatako irakurle-mota zerrenda** fitxan klikatu.

-  botoian klikatu.

Ondoko pantaila agertuko da, eta bertan gehitu nahi dugun **irakurle mota** hautatuko dugu.



Alta-data automatikoki beteko da, irakurle-mota lotzen den egunaren datarekin.

Berritze-data eremua utzik lagako da.

Iraungipen-datan bigarren irakurleari mailegu-zerbitzua erabiltzea uzten zaion muga-eguna idatziko da.

Bigarren irakurle mota honen datuak alda daitezke aldatu  botoian klikatuz edota ezabatu  botoian klikatuz.

Halaber irakurle bati lotutako bigarren motako irakurleen hurrenkera alda daiteke (betiere bi edo gehiago badaude), ikono hauen bidez  .

Gehitu +	Ordena	Irakurle-mota	Erregistro-eguna	Berriztapen-eguna	Iraungipen-Eguna
 	 1	BHA HAURRA	07/09/2012		28/09/2012 23:59
 	 2	DER ERAKUNDEA	22/02/2013		

▼

Gehitu +	Ordena	Irakurle-mota	Erregistro-eguna	Berriztapen-eguna	Iraungipen-Eguna
 	 1	DER ERAKUNDEA	22/02/2013		
 	 2	BHA HAURRA	07/09/2012		28/09/2012 23:59

IRAKURLEAK BESTEGANATZEA

Aukera honek irakurlearen barra-kodea aldatzea ahalbidetzen du. Aukera hau ondoko kasuetan erabiliko da:


- Haurra den irakurle baten zenbakia ordezkatu behar denean erabiltzaileak aurkezten duen NAN zenbakiagatik.
- NANA eskuratzen duten irakurle helduen kasuan, adibidez, herritartasuna lortu duten atzerritarrek.

Transferentziaren bidez sistemak automatikoki irakurlearen erlazio guztiak barra-kode berrira lotzen ditu.

Irakurleak transferitzeko honako urratsak jarraituko ditugu:

- Transferitu nahi dugun irakurlea bilatu.
- Behin bilatu eta gero,  botoian klikatu. NANA 7 digitu baino txikiagoa bada, aurretik 0 bat jarriko dugu (esaterako, 7236548 honela idatzi beharko da: 07236548).
- Ondoko leihoa agertuko da.



-  botoian klikatu eta sistemak automatikoki beste barra-kode bat emango du.

HAUR → HELDU IRAKURLE ALDAKETA

14 urte bete dituzten haur irakurleak irakurle heldura pasatzeko, CAUra deitu eta intzidentzia bat irekitzea gomendatzen da. Hemendik, SQL sententzia baten bitartez, urtero behin gutxienez aldaketa burutzen da. Eskaera egiteko honako informazioa eman beharko da:

- Haurretik heldurako aldaketa noiztik aurrera egin nahi den.
- Sukurtsalaren izena.
- Liburutegiaren izena.

IRAKURLEEN INPRIMAKIAK

Etiketa eta txartelak lortzea

Txartelak eskuratzeko, EIPS-eko liburutegiek nor bere lurraldeko ordezkariatzara deitu beharko dute:

ARABA

Imelda Uriarte

c/ Donostia-San Sebastián,
s/n

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 019 524

Fax: 945 019 534

BIZKAIA

Dolores Bustamante

c/ Gran Vía 85

48011 Bilbo

Tel.: 94 4031650

Fax: 94 4031651

GIPUZKOA

Xabier Izagirre

c/ Andia 13

20008 Donostia-San
Sebastián

Tel.: 943 022 964

Fax: 943 022 965

Inprimakien kodeak hauexek dira:

L-26 – Absysnet txartelak automatizazioa

L-28 – Irakurle-txartelaren eskabide-orria (elebietan)

L-29 – Irakurle-txartelaren eskabide-orria (euskara)

Irakurleen txartelak

Inprimatzeari buruzko zehaztasunak

Irakurle-txartelak inprimatzeko ere hainbat inprimatze-eredu daude liburutegietan inprimagailu mota desberdin ugari daudelako. Horregatik, hainbat eredu probatu beharko dira, gure beharretara gehien egokitzen den inprimagilua aurkitu arte.



Vitoria-Gasteizko irakurle-txartelaren eredua

Inprimatu behar diren etiketek Liburutegi Zerbitzuak ezarritako neurriak bete beharko dituzte, eta inprimatzea liburutegi bakoitzaren kontura izango da. *Txartelen azalak* Liburutegi Zerbitzuak banatuko ditu.

Irakurle txartelak inprimatzea


Irakurleen txartelak inprimatzeko:

1. *Irakurleen kudeaketa* leihoan sartu eta bilatu nahi diren eremuak hautatu.

Adibidea:

2012ko abuztuan liburutegian alta emandako heldua irakurle motari (AHE) dagozkion irakurleen barra-kodeak inprimatu nahi izanez gero.

2.  botoian klikatu.
3. Pantailan bilaketan aurkitutako erregistroak daudenean,  "etiketak" botoian klikatu. Ondoko pantaila agertuko da, eta inprimatzeko gure beharretara egokitzen den eredua aukeratu.



4. Soilik inprimatzeke dauden etiketa edota barra-kodeak inprimatu nahi izanez gero,  **Egin gabeko etiketak** aukera hautatu.
5. *Posizio libre* eremua automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da. Etiketa beste posizio batean inprimatzea nahi izanez gero, beste eremu batean adieraziko da inprimatu nahi den eredua hautatu aurretik eta *onartu* botoian klikatu aurretik.
6. *Bikoiztuak* eremua ere automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da. Txartel bera baten baino gehiagotan inprimatu behar izanez gero, eremu honetan adierazi beharko da eredua hautatu aurretik eta *onartu* botoian klikatu aurretik.
7. Interesatzen zaigun aukera edota aukerak hautatu ondoren,  botoian klikatu emaitza inprimatzeko. PDF artxibategi bat sortuko da eta emaitza inprimagailura bidaliko dugu.

Etiketak inprimatu aurretik pantailan ikusi nahi izanez gero,  botoian klikatu.

Txartelak inprimatu ordez, fitxategi batera bidali nahi izanez gero, geroago aldatu ahal izateko,  aukeratu eta  botoian klikatu beharko dugu. Honako pantaila agertuko da:



Aplikazioak sortutako fitxategiak wordpad edota word-ekin ireki beharko dira.

Irakurle etiketak inprimatzea


Txartelak inprimatzeko prozedura bera jarraituz, irakurleei bidaltzeko posta-etiketak inprima daitezke. Etiketa hauek inprimatzeko **L24 eredu** - **Inprimagailurako etiketak (barra-kodeak)** erabili behar da eta ondoko informazioa dakar:

Abizenak, Izena

Helbidea

Posta-kodea Herria

Txarteekin gertatzen den bezala, etiketen kasuan hiru eredu desberdin daude inprimagailu-mota desberdinekin inprimatu ahal izateko, ereduak hauexek dira:



Etiketak inprimatzeko ondoko urratsak jarraituko dira:

1. *Irakurleen kudeaketa* leihoan sartu eta bilatu nahi diren eremuak hautatu.
2.  botoian klikatu.
3. Bilaketan aurkitutako erregistroak pantailan daudenean,  botoian klikatu. Ondoko pantaila agertuko da eta inprimatu nahi den eredu hautatu.
4. Soilik inprimatzeko dauden etiketa-kodeak edota barra-kodeak inprimatu nahi izanez gero, ☐ *Egin gabeko etiketak* aukera hautatu.
5. *Posizio libre* eremua automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da. Etiketa beste posizio batean inprimatzea nahi izanez gero, beste eremu batean adieraziko da inprimatu nahi den eredu hautatu aurretik eta onartu botoian klikatu aurretik.
6. *Bikoiztuak* eremua ere automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da. Txartel bera baten baino gehiagotan inprimatu behar izanez gero, eremu honetan adierazi beharko da eredu hautatu aurretik eta onartu botoian klikatu aurretik.

7. Interesatzen zaigun aukera edota aukerak hautatu ondoren,  botoian klikatu emaitza inprimatzeko. PDF artxibategi bat sortuko da eta emaitza inprimagailura bidaliko dugu.

Irakurle zerrendak inprimatzea


Irakurleen zerrendak inprimatzeko, lehendabizi bilaketa bat egin beharko da inprimatzea mugatu nahi den eremuetatik. Horretarako, ondoko urratsak eman behar dira *Irakurleen kudeaketa* pantailatik:

1. Hautatu zein eremutan bilatu nahi den, esaterako, irakurle helduen **(AHE)** zerrenda eskuratu nahi izanez gero: emakumeena **(BEM)** eta profesionalena **(APR)**.

Datuak		Mailegua	Helbideak	Besterik	Beste motatako irakurle-mota zerrenda
Irakurle-mota	AHE HELDUA				
1go kodea	BEM EMAKUMEA				
2. kodea	APR PROFESIONALA				
3. kodea					
Profila					
		Alta-data	15/02/2006		
		Berritze-data			
		Iraungipen-data			
		Gabetze-data			
		Azkeneko erabilera eguna sarean	01/05/2016		
		Azkeneko erabilera eguna liburutegian	01/05/2016		

2.  botoian klikatu.

3. Interesatzen zaizkigun erregistroak aurkitu ondoren,  “zerrendak” botoian klikatu. Ondoko leihoa agertuko da, eta interesatzen zaigun zerrenda-mota hautatuko dugu.



absysNET Inprimatu

http://www.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetcl/X8454/ID7b4f907c/NT23?ACC=298&TB=29&AL

- 01 Alta-dataren arabera irakurleen zerrenda
- 02 Aktiboak ez diren irakurleen zerrenda
- 03 Irakurle-motaren arabera irakurleen zerrenda
- 04 Baimenik gabeko irakurleen zerrenda
- 05 Iraungitako irakurleen zerrenda
- 06 Irakurleen zerrenda alfabetikoa
- 07 Irakurleen zerrenda Excel-era esportatzeko
- 08 Irakurleen zerrenda alfabetikoa (alta-data eta izenperekina)

Inprimagailua PDF Pantaila Fitxategia Ezeztatu


4. Behin hautatu eta gero, hiru aukera daude:
 - Inprimatu,  botoian klikatuz.

- .txt formatuan fitxategi bat sortu, **Fitxategia** botoian sakatuz.
- Emaizak pantailan ikusi, **Pantaila** botoian klikatuz.

Irakurle gutunak inprimatzea

Sistemak liburutegietako irakurleei gutunak bidaltzea ahalbidetzen du. Irakurleen datuen helbideen fitxan *E-posta erabili* eremua hautatuz gero, gutunak automatikoki bidaliko dira hautatuko irakurlearen edo irakurleen posta elektronikora.

Irakurleei gutunak bidaltzeko, “Irakurleak” modulua zabalduko dugu, “Irakurleetatik inprima daitekena” menua zabalduko dugu eta “Irakurleen gutunak” aukera hautatuko dugu.



 ikonoan klikatu eta sortu nahi dugun gutun mota aukeratuko dugu.

Irakurleen gutunak	
Gutun-mota	Maileguen erreklamazioa
Liburutegia	Maileguen erreklamazioa
Irakurle-zk.	Mailegua amaitu baino lehen
Irakurle-mota	Erreserben jakinarazpena
1go kodea	Mailegu-eskaeraren jakinarazpena
2. kodea	Eskarrien jakinarazpena
	Ezeztapenen jakinarazpena
	Erreserbatutako maileguen erreklamazioa

Gutunen murrizketa egiteko behar ditugun eremuak hautatuko ditugu (biblioteka, irakurle-mota, etab.).

IRAKURLEEN GUTUNAK | BILATU

Irakurleen gutunak

Gutun-mota:

Liburutegia: Urkabustaiz Udal Liburutegia

Irakurle-zk.

Irakurle-mota

1go kodea

2. kodea

3. kodea

1go erreklamazioa ☒ 2. erreklamazioa ☒ 3. erreklamazioa ☒

Ba dago email/email gabe ☐

Irteera-fitxategia

Nora bidali: ☒ Inprimagailua ☐ PDF ☐ Fitxategia

Lehenik eta behin postaz bidaltzen diren gutunak sortzea komeni da. Honetarako, **Ba dago email/email gabe** ☐ laukiko marka kendu eta **Inprimagailua** ☒ aukera aktibatuko da.

Behin gutunak inprimagailura bidali eta gero, sortutakoak ezabatu nahi ditugun galdetuko digu:

Bidalitako gutunak ezabatu nahi dituzu?

Gutunak modu zuzenean inprimatu direla egiaztatzen dugu eta **Bai** botoian klik egiten dugu.

Arazoren bat egon bada eta gutunak ez badira behar bezala sortu **Ez** klikatzen dugu eta arazoari irtenbidea ematen diogu gutunak inprimatu ahal izateko berriro ere.

Erreklamazio gutunak irakurleentzat

Liburutegi Zerbitzutik erreklamatzeko bi gutun eredu ezarri dira: elebietan eta euskaraz.

Irakurle bakoitzat erreklamazio gutunak euskaraz soilik edota euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko, lehendabizi irakurlearen fitxan gutun-eredua adierazi behar da.

Datuak **Mailegua** **Herbideak** **Besterik** **Beste motatako irakurle-mota zerrenda**

Etxean mailegatutako art. Erreserbatutakoak

Aretuan mailegatutako art. Maileguak urte honetan

Eskatutako art. Maileguak aurreko urtean

Zorra Atzeratutako itzulketak

Ordaindutakoa Zigortutako aldi kopurua

Ordaindu gabekoa Bidalitako gutunak

Gutun-mota 1 Mod. 1


Irakurle berri baten datuak sartzerakoan, “gutun-motaren” laukia automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da; beraz, liburuzainak aldatu beharko du irakurlearen nahia jarraituz: 1 zenbakia jarriko du gutuna euskaraz eta gaztelaniaz (elebietan) jaso nahi badu, eta 2 zenbakia jarriko du gutuna euskaraz soilik jaso nahi badu.

Eremu hau beti bete behar da (1 edo 2 zenbakiekin); ez bada betetzen AbsysNet-ek ez du jakingo zein eredu erabili mailegua erreklamatzeko gutunak inprimatzeko orduan.

IRAKURLEEN ORDAINKETAK

ISUNEN KUDEAKETA


Aukera honek, isun edota beste kontzeptu batzuetan irakurleak liburutegiari zor dizkion diru-kopuruak kontrolatzen laguntzen du (izena emateko kuota, txartel aldaketa, etab.).



Zorrari zenbateko berri bat erantsi

Aukera honek irakurleak duen zorrari zenbatekoak eransteko balio du.

“Isunak” pantailan gaudela “kostua” botoia sakatzen dugu.



- “Irakurle-zk.” eremua beteko dugu, isuna erantsiko diogun irakurlea aukeratuz.
- “Biblioteka”, “Sukurtsala” eta “Gabetze-data” automatikoki betetzen dira.
- “Ordainketa/Kobranta mota” eremuan eragiketaren kodea aukeratu dugu.

Ordainketa/Kobranta mota	LC	LIBURUTEGIKO TXA
	CA	EROSKETA ESKUTITZA
	CP	MAILEGU ESKUTITZA
	CR	ERRESERBA ESKUTITZA
	KA	KARNETA ORDEZKATU
	LC	LIBURUTEGIKO TXART
	MP	MAILEGU ISUNA
	PR	MAILEGU/ESKAERA KO

- “Zorra” eremuan irakurlearen zorrari erantsi nahi diogun zenbatekoa jarriko dugu.

Informazioa sartu ondoren klikatuko dugu.

ISUNAK | KOSTUA

Irakurlea

Irakurle-zk. 120044777 Apellido, Lector

Liburutegia 01000 Lege-gordailua Zorra 0.00

Sukurtsala 344 Liburutegia Ordaindutakoa 0.00

Irakurle-mota Ordaindu gabekoa 0.00

Iraungipen-data Gabetze-data

Datuak

Ordainketa/Kobranta zk. Eguna 18/05/2016

Liburutegia A0009 Urkabustaiz Sukurtsala 019 Udal Liburutegia

Mota CO COBROS Ordainketa/Kobranta mota LC LIBURUTEGIKO TXARTELA

Erabiltzailea leuskera

Oharrak Liburutegiko txartelaren bidezko isun froga

Kostua ☒

Ale-mota Zorra 3.00

Barra-kodea Ordaindu gabekoa ☒

Irakurleen zorren ordainketak

Irakurleak ordaindutako zenbatekoa sartzeko erabiliko dugu aukera hau.

“Isunak” pantailan egonik “ordainketa” aukera sakatuko dugu.

ISUNAK | BILATU

Ordainketa Kostua

Irakurlea

Irakurle-zk. [] []

Liburutegia [] Zorra []

Sukurtsala [] Ordaindutakoa []

Irakurle-mota [] Ordaindu gabekoa []

Iraungipen-data [] Gabetze-data []

- “Irakurle-zk.” eremua beteko dugu, zorra ordainduko duen irakurlea aukeratuz.
- Leiho berri bat zabalduko da irakurleak ordaintzeke dituen isun guztiekin.

Isuna	Sukurtsala	Ordainketa/Kobranta mota	Eguna	Barra-kodea	Zorra
☒	256	LCLIBURUTEGIKO TXARTELA	28/02/2013		3.00

Onartu Ezeztatu

- Ordaintzeko dituen isun guztiak ordaindu nahi badira, “Onartu” botoia klikatuko dugu.
- Zorraren zati bat bakarrik ordaindu nahi bada, ezkerreko laukitxoaren bidez interesatzen ez zaizkigunen hautaketa ezabatuko dugu.
- “Ordainketa-mota” eremuan, irakurlearen ordaintzeko modua aukeratuko dugu.
- “Kobranta-kutxa” eremuan, zorra kitatuko den kutxa aukeratuko da. Kobranta-kutxak Liburutegi Zerbitzuan sortzen dira. Horretarako, interesa duten liburutegiek aldeztasun eskaera egin beharko dute.
- “Ordaindutakoa” eremuan, berriz, irakurleak ordaindu duen zenbatekoa sartuko dugu.

Irakurlea

